

**‘ARDATZ’ ITZULPEN ZERBITZUTIK JASOTAKO  
HIZKUNTZ KONTSULTA.**

**GRAMATIKA BATZORDEAREN ERANTZUN-TXOSTENA**

Gasteiz, 1997-VI-20

Jesus Mari Makazaga,  
Gramatika batzordeko idazkaria

Honela formatua iritsi da zalantza:

ONARGARRIA AL DA BALDINTZA HIPOTETIKOA IRAGANEAN DAGOEN ESALDI BATEAN? HONAKO HAU IZANGO LITZATEKE ADIBIDEA:

1. Nik gaur zera esan dut:

*“Loteria tokatuko balitzait, kotxe bat erosiko nuke”*

2. Hurrengo egunean, eta zozketa bihar dela aintzat hartuta, onargarria al litzateke horrelakorik erabiltzea?

*“Atzo esan zuen, loteria tokatuko balitzait (balitzaio), kotxe bat erosiko nukeela (zukeela)”*

Gramatika batzordearen ustez onargarria da goiko adibide hau; alabaina, horrekin batera beste hau ere onar daiteke:

*“Atzo esan nuen (zuen), loteria tokatuko balitzait (balitzaio) kotxe bat erosiko nuela (zuela)”*.

Era honetara jarraitzen du hizkuntz-kontsultak:

3. Beste era batean azalduta, onargarria al da ondoko esaldion arteko ezberdintasuna egitea?

3.1. *“Atzo esan nuen, loteria tokatzen bazitzaidan, kotxe bat erosiko nuela”*. (Ekintza burutua da eta jakintzat ematen dut ez zaidala tokatu).

3.2. *“Atzo esan nuen, loteria tokatu izan balitzait, kotxe bat erosiko nukeela / nuela”*. (Ekintza burutua da eta jakintzat ematen dut ez zaidala tokatu).

3.3. *“Atzo esan nuen, loteria tokatuko balitzait, kotxe bat erosiko nukeela”*. (Ekintza ez da burutua eta, zozketa oraindik egin ez denez, loteria tokatzeko aukera dago).

3.4. *“Atzo esan nuen, loteria tokatzen bazait, kotxe bat erosiko dudala”.* (Ekintza ez da burutu eta, zozketa oraindik egin ez denez, loteria tokatzeko aukera dago).

Hona hemen Gramatika batzordeak perpaus bakoitzari buruz egindako iruzkin, ohar edo zuzenketak:

3.1. Perpaus honen azpian bi egitura egon daitezke:

— ... tokatzen bazait, ... erosiko dut

— ... tokatuko balitzait, ... erosiko nuke

Edozein kasutan ere, ekintza burutua izan daiteke, baina ez nahitaez; burutua dela dakigun ekintza bakarra *esan* aditzak adierazten duena da. Parentesi artean ematen den azalpena gehiegizkoa dela esango genuke: “ekintza burutua da” (ez nahitaez) eta “jakintzat ematen dut ez zaidala tokatu” (ez nahitaez).

3.2. Bi egitura dira hemen ere posible:

— ... tokatu izan balitzait (balitzaio), kotxe bat erosiko nukeela (zukeela)

— ... tokatu izan balitzait (balitzaio), kotxe bat erosiko nuela (zuela)

Kasu honetan garbi dago esan zuena esan zuenerako ez zitzaiola loteria tokatu.

3.3. Adibidearen bi aukerak hasieran (2. puntuan) eman ditugu.

3.4. Adibidean ere bi egitura onar litezke (denbora-komuztadurarekin bata, eta komuztadurarik gabe bestea):

— ... tokatzen bazait, kotxe bat erosiko dudala.

— ... tokatzen bazait, kotxe bat erosiko nuela.

Gatozen argi gehiago ekar diezagukeen beste adibide batera:

*Javier Iruretak honako hau esan zuen partidu aurretik:*

a) *Irabazten badugu, Europara joango gara.*

b) *Irabaziko bagenu, Europara joango ginatete.*

Iraganeko zehar-estiloan jartzeko *-ela* sartu besterik ez dugu:

a) *Iruretak esan zuen partidua irabazten bazuten, Europara joango zirela.*

b) *Iruretak esan zuen partidua irabaziko balute, Europara joango lira-tekeela.*

Edozein kasutan ere, ez dago partiduan zer gertatu den jakiteko modurik, zehar-estiloan jasotzen ari garena partiduaren aurretik esandakoa soil-soilik baita (desberdintasuna da oraingo honetan iraganean ematen dugula).

Azkenik, gogorarazi nahi genuke ez dagoela beti gaztelania-euskara balio-kidetzarik egiterik; ez dagoela gaztelaniazko baldintza eta adizkeraren balio-kidetzatza sistematikorik egiterik kasu honetan euskaraz; euskarak bere sistema du eta gaztelaniak berea, eta, zorionez edo zoritxarrez, batzuetan desberdin egituratzen du hizkuntza bakoitzak informazioa. Hori dela eta, ez dago itzulpen-gintzarako dotrina jakinik ematerik (gaztelaniazko X egitura hau euskarazko Y egitura honi dagokio, eta Z egitura hau euskarazko beste bati) kasu askotan.